

ANTZERKIFORUMA

Gaiak, proiektuak eta xehetasunak

Tresnari buruz

2007. urteaz geroztik, Baketik-ek, Antzerki Forumaren metodologiari esker, haurtzaroa eta gazteria sentsibilizatzeko lana egiten du, batez ere jazarpena, arrazakeria, alkohol-kontsumoa, bide-hezkuntza, emakumeen eta gizonen arteko aniztasuna edo berdintasuna bezalako gaietan.

Augusto Boalek sortu zuen Antzerki Foruma, Paulo Freireren pedagogiari jarraipena emanez, 1970eko hamarkadaren hasieran, nekazariak eta langileak beren eskubideak aldarrikatzeko erabili zutenean. Geroago, irakasleek eta ikasleek ere erabiliko zuten; eta, gaur egun, artistek, gizarte-langileek, psikoterapeutek eta GKEek erabiltzen dute kale, eskola, eliza, sindikatu, antzoki, kartzela eta abarretan.

Baketik-ek Ipar Irlandako esperientzien bidez ezagutu zuen tresna hau eta 2007an jarri zuen abian programa, ikusi baitzuen antzerki parte-hartzailearen formula zuzena eta eraginkorra dela eskolan balio etikoak sustatzen laguntzeko. Bi ezaugarri nagusi ditu:

- helduok normalean adingabeei zuzentzen dizkiegun diskurtso, teoria edo gomendioen aurrean, ekimen honek hizkuntza sortzailea, dibertigarria eta inplikatihoa eskaintzen du; haiekin komunikatzeko bide askoz ere didaktikoagoa eta pedagogikoagoa da.

- arrazismoa edo eskolako indarkeria bezalako gaiak irakasteko orduan, adingabeak rol pasibo batean kokatu ohi dituzte gurasoek edo irakasleek; honen aurrean, Antzerki Forumak esperientzia bat bizitzeko aukera ematen die, non, ikusleak ez ezik, aktoreak eta zuzendariak ere diren. Errealitate bidegabe bat fikzioan eraldatzeko aukera dute. Antzerkiko eraldaketa horren subjektu izateak bizitza errealean antzeko aldaketak izaten laguntzen die.

Gaiak eta proiektuak

- Guka, [eskolako jazarpenaren](#) tratamendu etikorako programa. *Sararen istorioa.*
- [Kulturarteko bizikidetzan](#) balio etikoak sustatzeko antzerkia. *Zure azalean.*
- Eskolan [biktimekiko elkartasuna](#) lantzeko antzerkia.
- [Bide segurtasuna](#) sustatzeko antzerkia. *Norabide guztiak.*
- [Bizikidetzaren adiskidetzea](#) bultzatzeko antzerkia. *Eta hik zer?*

Egitura

1. Lehenengo zatia: aukeratutako gaiaren antzezlan, bukaera zoriontsurik gabe (30 minutu).
2. Bigarren zatia: foruma edo publikoaren parte-hartzea. Ikusleak agertokiko aktoreekin bat egiten du, ikusi nahi dituzten aldaketa positiboak azaltzeko. (ordubete).

Ordu erdiko atsedena.

3. Hirugarren zatia: taldea bitan banatzen da sakontze arin eta parte-hartzaileko tailer bat egiteko, hausnarketa, jarrera kritikoa eta konpromiso pertsonal eraldatzailea hartzerako eramango gaituen jarrera enpatikoa sustatzen dituen.

Informazio gehigarria

Antzezlanak euskaraz zein gaztelaniaz eskaintzen dira.

Programak goizez eta astelehenetik ostegunera eskaintzen direnean, hiru ordu irauten dute, "Eta hik zer?" izan ezik, bi ordu irauten ditu honek (antzerkia+foruma).

Jarduera arratsaldean programatuz gero, bi orduko iraupena izango luke (antzerkia + foruma, sakontze lantegirik gabe).

Sararen istorioa

#aniztasuna #enpatia #ezberdintasuna #bullying #elkartasuna #adiskidetasuna
#gizaeskubideak #gizaduintasuna

SINOPSIA

11 urteko neska batek urtebete zaharragoa den neska baten kuadrillan sartu nahi du. Neskak taldean sartzeko baldintzak jarri dizkio. Horietako bat da ez dadila gehiago ibili Gica bere lagun min errumaniarrarekin. Hortik aurrera, bizitza aldatu egin zaio. Hurrengo biktima Sara bere laguna izango da.

NORI ZUZENDUA

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko 1. eta 2. mailetako haurrentzat. Adina: 9, 10, 11, 12, 13 urte. 40 lagun gehienez.

IRAUPENA

3 ordu guztira: 1. eta 2. zatiak ordu eta erdi. Ordu erdiko atsedena eta ordubeteko tailerra.

BEHAR TEKNIKOAK

- Gela, areto edo liburutegi bat, mahairik eta aulkirik gabe. 60 metro karratu. Jendea lurrean esertzen da, eta aktoreak haien aurrean eta maila berean aritzen dira, publikoarekin elkarreraginean aritzen baitira.
- Antzezpena egiteko, idazmahai bat eta bi aulki behar dira.
- Ibilgailua ikastetxera sartu eta aparkatzeko aukera, zamalanak errazteko. Hori ezinezkoa bada, non egin daitekeen jakinaraziko da.

BALDINTZAK

Kasu honetan, ezinbestekoa da tutorea goiz osoan bertan egotea.

Zure azalean

#aniztasuna #familia #SexuldentitateaEtaOrientazioa #arrazismoa #aurreiritziak
#gizaeskubideak #duintasuna #gizarte-klaseak #mikro-indarkeria

SINOPSISIA

Hiru pieza labur. Lehenbizikoan, Salem-ek, Marokotik aitarekin datorren mutilak, hizkuntza eta kultura berri bati egin behar dio aurre. Gogoan du kide brasildar bat zirikatzen zuen garaia, eta orain sentitzen du bera dela eskolako eraso guztiak jasotzen dituen. Bigarrean, Ekuadorreko neska batek (Valeria), harrera-familia batean integratuta, lan-gatazka bat du lagun baten amaren erruz. Hirugarrean, Maccik bere lagun minarekin eztabaidatzen du, bere aitaren homosexualitatea agerian geratu baita amarengandik banandu ondoren.

NORI ZUZENDUA

DBHko 3. eta 4. mailako, batxilergoko eta lanbide modulu-tako ikasleei zuzendua. Etorkizuneko gizarte-hezitzaileentzat, irakasleentzat eta abarrentzat ere bai. Aniztasunaren eta immigrazioaren aurrean errespetua eta berdintasuna sustatzeko sentsibilitatea duten guztientzat. Adina: 14 urtetik aurrera. 40 lagun gehienez.

IRAUPENA

3 ordu guztira: 1. eta 2. zatiak ordu eta erdi. Ordu erdiko atsedena eta ordubeteko tailerra.

BEHAR TEKNIKOAK

- Gela, areto edo liburutegi bat, mahairik eta aulkirik gabe. 60 metro karratu.
- Aulkien zirkulu bat partaide guztientzat eta aktoreentzat.
- Ibilgailua ikastetxera sartu eta aparkatzeko aukera, zamalanak errazteko. Hori ezinezkoa bada, non egin daitekeen jakinaraziko da.

BALDINTZAK

Irakasle bat egon behar da goiz osoan, tutorea izatea beharrezkoa ez bada ere.

Norabide guztiak

#bide-segurtasuna #talde-presioa #erabakiakhartzea #erantzukizuna
#eskubideaketabetebeharrak #adiskidetasuna #autoestimua #alkohola

SINOPSIA

Halloween festa prestatzen ari da lagun-talde bat: Ekaitz, Barbara, Urko, Garazi, Aingeru eta Lorea. Aingeru eta Lorea elkarren gustoko dira, eta etxera azken autobusean elkarrekin itzultzeko asmoa dute. Ekaitzek barre egiten dio bizikletaren kaskoa ipintzean, eta Aingeru haserretu egiten da inork ez duelako defendatzen eta denek barre egiten diotelako irainen aurrean. Festan mendeku hartuko du eta ez da Lorearekin itzuliko; beraz, Loreak galdu egingo du etxera itzultzeko azken autobusa. Alkohola edan ondoren eta lagunen pasibotasuna ikusita, motorrean eramango du Ekaitzek.

NORI ZUZENDUA

DBHko 3. eta 4. mailako neska-mutilentzat. Adina: 14, 15, 16 urte. 40 lagun gehienez.

IRAUPENA

3 ordu guztira: 1. eta 2. zatiak ordu eta erdi. Ordu erdiko atsedena eta ordubeteko tailerra.

BEHAR TEKNIKOAK

·Ekitaldi-aretoa, auditorioa, ikasgela edo liburutegia izan daiteke. Ikasgela edo liburutegi bat baldin bada, publikoarentzako aulkiak eta antzezpenarentzako leku nahikoa dituena.

·Ibilgailua ikastetxera sartu eta aparkatzeko aukera, zamalanak errazteko. Hori ezinezkoa bada, non egin daitekeen jakinaraziko da.

BALDINTZAK

Irakasle bat egon behar da goiz osoan, tutorea izatea beharrezkoa ez bada ere.

Eta hik zer?

#bizikidetzta #enpatia #indarkeria #terrorismoa #presoak #barkamena
#gizaeskubideak

SINOPSIA

Egungo testuinguru sozial eta politikoan elkarbizitza eta adiskidetzea sustatu asmoz, "Antzerki-foruma: Eta hik zer?" ekimenak gure elkarbizitzan sakontzeko elkargune bat izan nahi du. Hiru galderen inguruan hausnartzeko espazio bat: Zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin dezakegu etorkizunean errepika ez dadin? Bi orduko esperientzia pertsonal bat da, gure iragan hurbilera so egin eta etorkizun kolektiboa beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera ematen diguna.

NORI ZUZENDUA

16 urtetik gorakoentzat. Gehienez ere 50 lagun.

IRAUPENA

Bi ordu guztira. 35 minutuko antzezpena eta ordubete eta 25 minutuko foroa.

BEHAR TEKNIKOAK

·Areto, auditorio, ikasgela edo liburutegi bat. Ikasgela edo liburutegia baldin bada, publikoarentzako aulkiak eta 50 metro koadroko espazioa antzezlanerako.

·Ibilgailua ikastetxera sartu eta aparkatzeko aukera, zamalanak errazteko. Hori ezinezkoa bada, non egin daitekeen jakinaraziko da.

BALDINTZAK

Eskola orduetan eta ikasleei zuzenduta egiten bada, irakasle bat egon behar da saio osoan zehar, tutorea izatea beharrezkoa ez bada ere. Halaber, iradokitzen da ikasleei antzerki-lana hobeto ulertzeko eta lan egiteko azken urteetako testuingurua eta inguruabarrak aldeztu aurretik azaltzea.